



Hezkuntza Sailako Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko uztailaren 21eko ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko Hezkuntzako Sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko aginduaren bidez deitutako lehiaketa-oposizioan, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin betiko puntuazioak argitara ematen dituen

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko azaroaren 14ko aginduaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko lehiaketa-oposizioa deitzen duena) 7. oinarrian xedatutakoaren arabera, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa-aldian izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak argitaratu ziren.

Behin-behineko puntuazio horien aurka aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta antzemandako akatsak zuzendu ondoren, dagozkion aldaketak egin dira.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Izangaiek lehiaketa-aldian lortutako behin betiko puntuazioak argitara ematea.

Behin betiko zerrenda Interneteko helbide hauetan argitaratuko da: <http://www.irakasle.eus> ("erabiltzailea" eta "pasahitza") - Hautaketa-prozesuaren jarraipena - klikatu "kidegoa" - Emaizak - Lehiaketa aldia. Guztira eta <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak/> ("2019koEPE. Hezkuntza Ikuskaritza").

Bigarrena.- Ebazpen horren aurka -prozedura ez da ebazpen horrekin amaitzen- ezingo da errekurtsorik jarri; horrela, interesdunek, hala badagokio, errekurtsioa jarri beharko diote deialdiko 9. oinarrian aurreikusitako azken ebazpenari.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Gasteizen, 2020ko uztailaren 21ean